II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala behin betiko onestea

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeko erabakiaren jendaurrean egon den bitartean ALHAO, 123. zk., 2024ko urriaren 28koa) ez da haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu. Hortaz, behin betiko onetsita geratzen da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testu osoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2. artikuluan jasotako ondorioetarako:

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zergari buruzko foru arau berezian jasotakoaren arabera, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eskatzen du ordenantza honen arabera, eta ordenantzaren zati da aplikatu beharreko tarifen taula jasotzen duen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerri osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

Hau da zerga egitatea:

1. Bide publikoan ibiltzeko egokiak diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titularra izatea, edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerri honi badagokio.

2. Behar diren erregistro publikoetan matrikulatutako ibilgailuak zirkulaziorako erabilgarritzat joko dira bajarik eman ezean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena eta turismo matrikula duten ibilgailuak ere zirkulatzeko egokitzat joko dira.

3. Honako hauek ez daude zerga honen kargapean:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, baldin eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena eman bazaie.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoiak eta erdiatoiak, 750 kg arterainoko zama erabilgarria dutenak.

III. Salbuespenak eta hobariak

4. artikulua

1. Zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal erakundeen ibilgailuak, defentsarako edo herritarren segurtasunerakoak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

b) Ordezkari diplomatikoen, kontsulatuen ibilgailuak eta karrerako agente diplomatiko eta kontsulatuetako funtzionario kreditatuenak, dagokien lurraldeko herritar badira. Ibilgailuek kanpotik identifikatuta egon behar dute eta salbuespen hori elkarrekikoa izan beharko da, bai hedapenari, bai neurriari dagokionez.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, bai eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorraren II. eranskinaren A letrak aipatzen dituen mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak, baldin eta desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta badaude.

Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira 14 zaldi fiskaletik behera duten, desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta dauden eta eurek bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai desgaitasuna duten pertsonek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai desgaitasuna duten pertsonak eramateko ibilgailuen kasuan.

Orobat, zergatik salbuetsita daude guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dela eta ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukan pertsona baten ardura dutela frogatzen dutenen ibilgailuak.

Aurreko hiru paragrafoetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko onuradun diren subjektu pasiboei ibilgailu bat baino gehiagorengatik.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

a') Ehuneko 33 eta 65 bitarteko desgaitasun gradua onartuta daukaten pertsonak, mugitzeko gaitasuna ehuneko 25 edo gehiago murriztuta daukatenak, Desgaitasunaren gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun jardueren mugak ebaluatzeko azpibaremoaren arabera.

b') Ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun gradua duten pertsonak.

Aurreko a´) eta b´) letretan aipatzen diren pertsonetatik Desgaitasunaren gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun jardueren mugak ebaluatzeko azpibaremoaren arabera mugitzeko gaitasuna ehuneko 75 edo gehiago murriztuta daukatenei ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, baldin eta ibilgailua gurpil aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago.

f) Gidaria barne bederatzi plaza baino gehiago dituzten hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak.

g) Nekazaritzako ikuskatze txartela duten traktore, atoi, erdiatoi eta makinak.

2. Artikulu honen 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesa dutenek eskatu egin beharko dituzte, eta adierazi ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia. Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

Aurreko 1. apartatuko e) letraren bigarren paragrafoan jasotako salbuespena dela eta, interesdunak desgaitasunaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, eta, hala behar izanez gero,

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

mugikortasun mugatuko egoerarena ere bai, kasuan kasuko organoak emana, eta Iruña Okako Udalean justifikatu ibilgailuaren erabilera. Adierazi beharrekoa da ezen interesatuak, goian adierazitako ziurtagiriaz gainera, eta dagokion eskabidearekin batera, ibilgailuaren zirkulazio baimena aurkeztu beharko duela; eta, ibilgailua bere erabilera esklusiborako bada, gi dabaimenaren kopia aurkeztuko du. Ibilgailua bera garraiatzeko bada, gainera, eskabidean, gidariaren izen-deiturak eta NANa eta gidabaimenaren kopia eman beharko ditu, eta hark ere ezinduaren bizitokian egon beharko du erroldaturik.

Ez bada salbuespena eskatzen ibilgailuaren altarekin batera, salbuespena eman eta urtebetera sartuko da indarrean.

IV. Subjektu pasiboak

5. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, baldin eta ibilgailua haien izenean agertzen bada zirkulazio baimenean, bai eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentziak ere, baldin eta foru arau honen 1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

V. Kuota

6. artikulua

1. Eranskinean jasota dagoen tarifen taularen arabera eskatuko da zerga.

2. Ibilgailu mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; arau hauek ere kontuan izango dira:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da, baldin eta turismo ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen bada, dela eserlekuak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modeloa funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek turismoei dagozkien zergak ordainduko dituzte, potentzia fiskalaren arabera, kasu hauetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailuak autobusa balitz bezala ordainduko du, bederatzi pertsona baino gehiago (gidaria barne) garraiatzeko prestatuta badago.

Bigarrena. Ibilgailua 525 kilogramoko zama erabilgarria baino gehiago eramateko baimenduta badago, kamioiari dagokion zerga ordainduko du.

b) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira, eta, beraz, zilindradaren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, trakzioa duen zatiak eta hark tiratutako atoiak edo erdiatoiak, biek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotor, atoi eta erdiatoien kasuan, duten edukiera dela eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako gai joko dira industria ordezkaritzak dagokion ziurtagiria ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, benetan zirkulazioan dauden unetik.

e) Trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek tiratu beharrik gabe bide publikoetan ibil daitezkeen makina autopropultsatuek traktoreen tarifen arabera ordainduko dute zerga.

f) Betiere, tarifen d) letran azaltzen den "traktore" izendapen orokorraren barruan sartzen dira traktokamioiak eta "obra eta zerbitzuetarako traktoreak".

g) Ibilgailuaren potentzia fiskala, zaldi fiskaletan emana, abenduaren 23ko 2822/98 Errege Dekretuaren 11.20 artikuluan testu beraren V. eranskinarekin loturik xedatutakoaren arabera finkatuko da. Dekretu horren bidez onartu zen Ibilgailuen Araudi Orokorra.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Zerga honen ondorioetarako, autokarabanek ibilgailuek bezala tributatuko dute.

Hobariak:

1. Zerga honen subjektu pasiboek zergaren kuotan hobaria izango dute hurrengo ataletan zehatutako baldintzetan.

Hobariak ez dira bateragarriak elkarren artean.

1.1 Familia ugariak.

1. Zerga kuotaren hobaria izango dute bost leku edo gehiagoko ibilgailuek, baldin eta jabea familia ugariko kide bada, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Familiako ibilgailu bakar batek izango du hobaria.

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	HOBARIAREN EHUNEKOA
3 kide	% 15
4 edo 5 kide	% 30
5 kide baino gehiago	% 50

Subjektu pasiboak egin behar du hobariaren eskaera, eta eskaera horrekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar ditu:

— Hobaria eskatzeko idazkia. Eskaera horretan, ibilgailua zein den adierazi behar da.

— Familia ugariaren egiaztagiria, edo familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua.

— Udal erroldaren egiaztagiria.

— Ibilgailuen azterketa teknikoaren indarreko agiria.

Hobariaz gozatzeko epea urtebetekoa izango da, nahiz eta subjektu pasiboak epe hori luzatzeko eskatu ahal izango duen hobaria bukatzen den urtearen barruan. Horretarako, araututako baldintzak batera eman behar dira. Edonola ere, hobaria ofizioz iraungiko da, subjektu pasiboak familia ugariko titularra izateari edo aipatutako baldintzaren bat betetzeari utzi eta hurrengo urtean.

Hobaria subjektu pasiboak eskatu behar du urte horretako martxoaren 31 baino lehen. Hala izango ez balitz, hobari horiek datorren ekitalditik aurrera emango dira; beti ere, ordenantza honetako xedapenak aldatzen ez badira.

1.2 Ehuneko 100era arteko hobaria ezarri da ibilgailu historikoentzat edo gutxienez hogeita hamar urte dituztenentzat, fabrikazio datatik edo lehen matrikulazioaren datatik zenbatuta edo, data hori jakin ezean, lehen matrikulazio data hartuko da kontuan.

Ibilgailuaren fitxa teknikoa aurkeztu beharko da.

1.3.

a) Zergaren kuotan Ehuneko 90eko hobaria izango dute DGTren ibilgailu erregistroan sailkapen hauetakoren bat dutenek: bateriazko ibilgailu elektrikoa, autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa, ibilgailu elektriko hibrido entxufagarria. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpena, 2016ko apirilaren 13koa (2016ko apirilaren 21eko BOE, 96. zk. - VIII. eranskina).

b) Zergaren kuotan ehuneko 50eko hobaria izango dute DGTren ibilgailu erregistroan sailkapen hauetakoren bat dutenek: ibilgailu hibrido entxufagarriak (autonomia: <40 km), ibilgailu hibrido ez-entxufagarriak, gas naturalez bultzatutako ibilgailuak, gas naturalez edo petrolio gas likidotuz bultzatutako ibilgailuak. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpena, 2016ko apirilaren 13koa (2016ko apirilaren 21eko BOE, 96. zk. - VIII. eranskina).

Ibilgailuaren kutsatzeko ahalmenaren araberako hobariak ehuneko 10 handituko dira zergaren tarifa bost plazako edo gehiagoko turismo ibilgailuei aplikatzen zaienean, baldin eta ibilgailu horien titularra familiako kideren bat bada eta, indarreko legerian ezarritakoaren arabera, familia ugaritzat jotzen bada.

Hobariak subjektu pasiboak eskatu behar ditu urte horretako martxoaren 31 baino lehen. Hala izango ez balitz, hobari horiek datorren ekitalditik aurrera emango dira.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

VI. Zergaldia eta sortzapena

7. artikulua

1. Zergaldia urte naturala izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Kasu horietan, zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da edo trafiko buruzagitzan baja ematen zaion egunean amaitu.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da tasa.

3. Ibilgailua lehen aldiz eskuratzean, kuotaren zenbatekoa eskuratze egunetik abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagokion ehunekoari dagokiona izango da, edo, hala badagokio, ibilgailuari baja ematen zaion egunera arteko aldiari dagokiona.

4. Ibilgailuari baja ematen bazaio, zergaren kuota kalkulatzeko, urtarrilaren 1etik trafiko buruzagitzan ibilgailuari baja ematen zaion egunera bitarteko aldiari dagokion ehunekoa hartuko da kontuan.

VII. Kudeaketa

8. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den herriko udalari dagokio kudeaketa, likidazioa, ikuskatzea eta bilketa, bai eta zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea ere.

9. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua:

Udal administrazioak emandako ordainagiriaren bitartez egiaztatuko da zerga ordaindu izana.

11. artikulua

Ekitaldi bakoitzeko lehen seihilekoan ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

12. artikulua

Matrikulazioa berria bada, edo zergen ondorioetarako ibilgailuaren sailkapena aldatzen duen bestelako aldaketaren bat egiten bada, interesdunek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartzeko, matrikulatu edo aldaketa egin eta 30 egun balioduneko epean:

a) Zirkulazio baimena.

b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.

c) NAN edo IFK

13. artikulua

1. Trafiko buruzagitzan matrikulazioa eskatzen dutenek, hau da, zirkulatzeko gaitasun agiria, aldez aurretik egiaztatu beharko dute zerga ordaindu izana.

2. Ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari aldez aurretik frogatu beharko diote aurkeztu zaien azken ordainagiria ordaindu dutela, kasu hauetan: ibilgailuak eraberritu badituzte, zergaren ondorioetarako sailkapena aldatzeko moduan; ibilgailua eskualdatzen badute; ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza aldatzen badute; edo ibilgailuari baja ematen badiote. Hala badagokio, kudeaketaren eta ikuskatzearen bidez, kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.

3. Trafiko Buruzagitzak ez ditu izapidetuko ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak, aldez aurretik Zerga ordaindu dela frogatzen ez bada.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza

Eranskina

A) Turismoak:	
8 zaldi fiskal baino gutxiago	14,24 euro
8 - 11,99 zaldi fiskal	38,48 euro
12 - 15,99 zaldi fiskal	81,22 euro
16 - 19,99 zaldi fiskal	121,42 euro
20 zaldi fiskal edo gehiago	158,12 euro
B) Autobusak:	
21 plaza baino gutxiago	94,07 euro
21 - 50 plaza	133,95 euro
50 plazatik gora	167,46 euro
C) Kamioiak:	
Zama erabilgarria 1.000 kilogramo baino gutxiago	47,74 euro
Zama erabilgarria, 1.000 - 2.999 kilogramo	94,07 euro
Zama erabilgarria, 2.999 - 9.999 kilogramo	133,95 euro
Zama erabilgarria, 9.999 kilogramotik gora	167,46 euro
D) Traktoreak:	
16 zaldi fiskal baino gutxiago	19,95 euro.
16 - 25 zaldi fiskal	32,33 euro
25 zaldi fiskaletik gora	94,07 euro
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdiatoiak	
Karga erabilgarria 1.000 kg-tik behera eta 750 kg-tik gora	19,95 euro
Karga erabilgarria 1.000 kg - 2.999 kg	32,33 euro
Karga erabilgarria 2.999 kg-tik gora	94,07 euro
F) Bestelako ibilgailu batzuk:	
Ziklomotorrak	5,00 euro
Motozikletak, 125 cc edo gutxiago	5,00 euro
Motozikletak, 125 cc-tik gora eta 250 cc-ra bitartean	8,54 euro
Motozikletak, 250 cc-tik gora eta 500 cc-ra bitartean	17,10 euro
Motozikletak, 500 cc-tik gora eta 1.000 cc-ra bitartean	8,54 euro
Motozikletak, 1.000 cc-tik gora	68,41 euro

Azken xedapena

Ordenantza fiskal hau indarrean egongo da ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta indarrean jarraituko du espresuki aldatu edo indargabetzen den arte.

Langraiz Oka, 2024ko abenduaren 13a

Alkate-lehendakaria
MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.12.20 07:12:16 Z